



### Zenbait egile

### Literatura Terminoen Hiztegia

Bilbo : Euskaltzaindia, 2008. – XXVI, 800 or. ; 24 cm.  
– (Hiztegiak ; 13). – ISBN: 978-84-95438-34-8.

Literatura Terminoen Hiztegia Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak elkarlanean burutu duen egitasmoaren emaitza da eta irakurlego zabalarentzat kontsulta material gisa proposatzen da, literaturaren arloko ikaskuntzez informazioa eskuratu nahi duen edonorentzat, informazio iturri gisa.

Liburu mardul horren egilea izan den ikerketa taldea, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordea, Juan Mari Lekuonaren proposamenez sortu zen 1992an. Liburuaren lehen hitzetan Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak irakasle zenduari eginiko eskaintzan azaltzen du ikerle-taldehonon ibilbidea. Euskal akademiaren VI. Barne Jardunaldietan aurkeztu zuen Juan Mari Lekuonak hura sortzeko proposamena, zehazki Lazkaon eginiko batzarrean (1989), eta txosten batean garatu zuen zein xede eman nahi zion Literatura Batzordeari hari. Lekuonaren egitasmoa II. Euskal Mundu Biltzarren ondoriozko hausnarketatik sortu zen, hots, Mundu Biltzarreko Literatura atalean parte harturiko irakasle eta adituek osaturiko lantalde iraunkorra eratu nahi zuen Euskaltzaindiaren erakunde babesean kokatuz.

Gehienbat Unibertsitateetako departamenduetako irakasle eta ikerleek literaturari buruzko gogoeta teoriko eta metodologiko jarraituari atxikiak aritzeko moduko batzordea sortu nahi zuen eta plangintza autonomo eta koordinatu baten barruan jardunarazi. Unibertsitateko literatura departamenduen arteko loturak eta harremanak tinkatzea zen xedea eta proiektu bateratuetan jardutea. Hala bildu da hogeitaz irakasle eta aditu taldea hiztegi honen erredakzio prozesuan: Aurelia Arkotxa, Ana Toledo, Gorka Aulestia, Iratxe Retolaza, Joan Krutz Igerabide, Juan Mari Lekuona, Jon Casenave, Jean Haritschelhar, Jon Kortazar, Karlos Otegi, Luis Mari Mujika, Lourdes Otaegi, Maria Jose Olaziregi, Patxi Altuna, Pello Esnal, Patxi Salaberri Muñoa, Patri Urkizu, Txomin Peillen, Ur Apalategi eta Xabier Altzibar.

Euskaltzaindiko Iker saileko bost batzorde nagusietan, Literatura batzordeak bi azpibatzerde ukan ditu: Herri literatura azpibatzerdea eta Literatura ikerketa batzordea. Bigarren hori da zehazki aipagai dugun lan honen egilea, nahiz eta lehenaren kide den Pello Esnalek ere parte hartu du hiztegiaren atal batean, bertsogintzari dagokion atalean. Haritschelharrek berak hitzaurrean aipatzen duenez, Literatura Ikerketa Batzordeak bi xede hartu ditu azken hamabost urte horietan: literaturari buruzko ikaskuntzetan, hots, literatur teorian, literatur kritikan eta literaturaren historian euskarazko irakaskintzan nahiz komunikabide idatzi eta ahozkoetan erabiltzen den terminologia adostea eta finkatzea. Lan horren emaitza da honako liburu hau.

Halabaina, proiektu luze honekin batean, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak euskal idazle zenduei buruzko ikastaro berezituak antolatu ditu, bai eta omenaldiak, jardunaldiak eta kongresuak; horretarako, bere baitan dituen ikerleak partaide izan dira gehienbat, baina gaian adituak ziren partaideak ere ekarrarazi ditu, besteak beste, 1992an Maulen eta Donapaleun Oihenarti eskainitako Biltzar Nagusirako; gisa berean egin zuen Eusko Ikaskuntzarekin batean Hendaian Anton Abbadiari eskaini zitzaion Biltzar nagusia (1997), edota Baionan Lafitteren omenez eginiko Biltzarrean (2002). Bestalde, jardunaldietan aztertuak izan dira hainbat idazleren obrak, hala Iparraldekoak (Elizanburu, Oxobi,...), nola Hegoaldekoak (Kardaberaz, Arana, Ubillos, Lizardi, Lauaxeta, Txillardeg...), Biltzar Nagusietako emaitzak Iker saileko argitalpenetan eman ditu Euskaltzaindiak, jardunaldietakoak aldiz, Euskera aldizkarian agertu dira.

Literatura Ikerketa Batzordearen egitasmoetan iraunkorrena esku artean dugun Literatura Terminoen Hiztegi hauxe izan da eta zeregin honi eskaini dizkio bere ahaleginak. Hortaz, lan ziklo luzea osatu du hiztegia argitaratzean, izan ere, 1989an sorturiko Literatura Batzordearen baitan ikerketa arlo bat bereizi nahiz, Lekuonak eginiko proposamena gauzatu zen 1991n. Lehen bileretako emaitza gisa, literatura arloko lanetan erabiltzen den terminologia finkatzeko eta ikertzeko asmoa hobetsi zuten, ikerketa esparru horrek lehentasunezko premia zuela iritzita. Aztertuko zuen terminoen zerrenda eta lantaldea finkatu ziren eta 1993 urtetik hasita 2004ra arte iraun du hiztegiaren idazte prozesuak.

Erredakzioa euskal literaturaren ikasketetan aditu direnek gauzatu dute eta zalantzarik gabe horixe da hiztegi honen bermerik zindoena. Lexiko honen behar gehiena dutenek idatzi dutela esan daiteke, hein berean, izan ere Euskal Herriko Letren Fakultateetan irakasle dira egileok eta euren beharretarako euskal terminologia finkatzea lagungarri suertatuko zaie. Egileen lan esparruak banaka hartuta ikus daiteke hori argienik. Batetik, Bourdeaux 3-Michel de Montaigne-ko Unibertsitateetako irakasleak dira Aurelia Arkotxa eta Jon Casenave; Paue eta Adour Herriko Unibertsitatekoak, Jean Haritshchelhar, Txomin Peillen eta Ur Apalategi; Euskal Herriko Unibertsitatekoak, Jon Kortazar, Karlos Otegi, Luis Mari Mujika, Maria Jose Olaziregi, Xabier Altzibar, Lourdes Otaegi, Patxi Salaberri Muñoz, Joan Krutz Igerabide eta Iratxe Retolaza; Deustuko Unibertsitatekoak Juan Mari Lekuona, Ana Toledo, Patxi Altuna, Gorka Aulestia eta UNEDeko Patri Urkizu.

Hiztegiaren egiturari dagokionez, lantaldean osaturiko hiztegiaren corpus nagusia hitzegi sarrerek berek osatzen dute, literaturaren ikaskuntzen baitan garaturiko lexiko bereziuaten multoa. Horiek direla eta, edukiaren koordinazioaren arduradunak, Lourdes Otaegi irakasleak, literatura terminoen edukiaren antolaketari buruzko zehaztasunak ematen ditu, eginiko lexiko hautuen irizpideak zehatzuz eta erabilitako erreferentziak azalduz.

Batzordearen idazkariak liburuaren sarreran ematen dituen hiztegiaren argibide lexikologikoetan ikus dezake erabiltzaileak batzordearen lanean lehentasunezko helburua izan dela euskal literaturaren ikasketa komunitateari proposamen ahal bezain koherentea aurkeztea eta etorkizuneko ikaskuntzen ibilbiderako adierazbide lexikoak finkatzea. Literatura Ikerketa Batzordeak euskal literaturaren ikasketa erkidegoari eginiko proposamena eta eskaintza da Literatura Terminoen Hiztegia 2008, jakinik euskal ikasketen testuinguruan, literaturari buruzko diskurtsoaren eraikuntzan lexiko berezitua finkatzea guztiz lagungarri gerta daitekeela, literaturaren teoriaren, kritikaren eta historiaren alorrean diharduten profesionalen erreferentzia tresna eskaintzea helduleku baliaigarria izan daitekeela.

Aurkezpen hitzetan esaten den moduan, literaturaren inguruko ikaskuntzen berri emateko euskaraz garatu den lexikoa agertzea, finkatzea eta azalpen testuetan erabiltzea izan da hiztegi honen xede nagusia, baina, beste edozein literatura terminoen hiztegiaren edukia euskaraz emateaz gain, euskal literaturari atxikiriko azalpenak, adibideak eta ereduak eskaintzea izendatu du helburutzat, baina aldi berean, ahalegin berezia egin da literaturari buruzko ikaskuntzen garapenaren berri eguneratua emateko, hala nazioarte mailakoa, nola euskal esparrukoa.

Batzordearen lanaren buruaren hitzetan, termino literarioen azalpena egitean, munduko beste edozein hizkuntzatarako hiztegietan egon daitekeen informazioaz gain euskal literaturari dagokiona biltzeko eta aurkezteko asmoa izan dute beti gogoan. Termino horiek azaltzerakoan ez zeriortzoten aski inguruko hizkuntzetako literatura terminoen hiztegietan zegoen informazioa bildu eta itzultzea, beharrezkoa zen euskal ikerketa literarioen berri eman eta euskal literaturaren erreferentzia zehatzak eskaintzea. Horrek ekarri du, zenbaitetan, azalpenetan luzatzea, adibide eta argibide gehiago eman behar izatea eta, ondorioz, tamaina bereko beste zenbait hiztegi baino termino gutxiagori buruz jardun ahal izatea, helburu informatiboa eta didaktikoari lehentasuna emanik, euskal erabiltzailea gogoan hartuta eginiko lana baita, eta ez adituarentzat soilik egina.

Izan ere, hiztegi honen hartzaile naturalak dira literatura irakasleak eta ikasleak: hala Unibertsitatekoak, nola Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak eta Batxilergokoak. Baina gisa berean dira testu honen hartzaile maila horietarako testu liburuen egileak, erredaktoreak eta itzultzaileak, komunikabideetan euskal literaturaren berri ematen duten kazetariak, hizkuntza zuzentzaileak: hala ikus-entzunezkoak, nola idatzizkoak eta orokorrean literatura zaleak.

Xede informatibo eta didaktikoak lehenetsi dituzte, beraz, Literatura Ikerketa Batzordeko kideek azalpen espezializatuegiak izan zitezkeenak ahal den erarik argienean adierazten saiatuz eta barne koherentziari eutsiko zion kontsulta materiala sortzea helburutzat hartuta. Ikaskuntza literarioei buruzko bibliografia zabala oinarritzat hartuta erredaktatu dira hiztegi sarrerok, ikerketari ere bidea itxi gabe; bereziki euskal literaturari buruzko lan kritikoen berri zehatza eta ekarpen puntual zenbait ere badira lerro horietan zehar, hala nola ikuspuntu ezberdinetatik abiatuz egin duten euskal metrikaren deskribapenean edo ahozko nahiz idatzizko euskal literaturaz egin den agerpena termino gehienetan barrena eginiko azalpenetan. Alde aurretik adierazia baitu hiztegi sarreran batzordeak ekarpen teoriko, historiko edo kritiko berriak egiteko helbururik ez duela hartu, horiek egitea beste argitalpen mota espezializatupei dagokielako. Halaz ere, bada ekarpen berritasun aipagarriak eta ikerketa lanik ere zenbait hiztegi sarreren egileek eginiko azalpenetan.

Egiturari buruzko zertzeladak osatzeko, berriz, erantsi behar da hiztegi sarreren multzoarekin batean, honelako testuetan ohikoa den informazio osagarria dakarrela hiztegiak. Esan bezala, aurretik datoz, Jean Haritschelharrek Juan Mari Lekuonari eginiko eskaintza hitzak, non adiskidea izan zuenari hitz aintzagarririk eskaintzen dizkion. Hurrena datoz Literatura Ikerketa Batzordearen izenean eginiko sarrera hitzak, Juan Mari Lekuona batzordeburua zenak eta Lourdes Otaegi batzordeko idazkariak lanaren prestatze prozeduren berri ematen duten argibideak emanez. Batzordeko idazkariak jadanik aipatuak ditugun hiztegiari buruzko argibide teknikoek gain, aldiz, hiztegiaren amaieran datoz zenbait informazio osagarri biltzen duten eranskinak: batetik, hiztegi sarreren ostean aipaturiko bibliografiaren zerrenda bateratua, eta bestetik, hiztegi sarreren hiru hizkuntzetako baliokidetzak gaztelaniaz, frantsesez, eta ingelesez.

Edukiaren azalpen tematikoari dagokionez, esan bezala, literaturaren teoria, historia eta kritikaz eta bereziki euskal literaturaz, informazio sintesia eskaintzen da, ahalik eta modu adigarrienean. Horrenbestez, terminoez emandako azalpenek helburu deskriptiboa dute gehienbat, baina, neurri apal batean, helburu preskriptiboa ere badu, termino batzuk besteen aldean hobesten dituzte. Bestalde, literaturari buruzko diskurtsoa garatzeko proposamen lexikoa egiten da eta hiztegian zehar hedatu den azalpen testuan erabili da lexiko hori, euskal ikerketetan itsatsi eta hedatzeko xedea baitu.

Hiztegi sarreren egituraketari dagokionez, termino bakoitzaren planteamendua ere modu didaktikoan taxutu da eta termino bakoitzak dituen adierak azaltzen dira halako egitura orokor eta malgu baten arabera: lehenik, definizio saio bat eskaintzen da eta hitzaren jatorriari buruzko aipamena, etimologiarekin batera kasu gehienetan, zenbaitetan termino aski ezohikoen adiera gogoan hartzen lagun dezakeelakoan. Ondoren, hedapen bat eskaintzen da; hitzaren jatorri eta bilakaera historikoari buruzko azalpenak, edo definizioa osatzera datozen beste zenbait xehetasun, ezaugarri, sailkapen edo azalpen eskaintzen dira. Hitzak dituen adiera historikoak ere gogoan hartzen dira, irizpide kronologikoari atxikirik. Azkenik, euskal literaturan terminoak izaniko erabilera eta garapena agertzen da, eta, atal horren baitan, sarritan, ahal izan den guztietan, euskal literaturatik hautaturiko adibide edo pasarteak ezarri dira, euskal literaturatik harturikoak. Gisa berean, aipaturiko testu literario nahiz kritikoen aipamenetan lehen-tasuna eman zaio jatorrizko hizkuntzan adierazteari eta argitaratze datari, eta ondoren euskarazko itzulpenik egin bada itzultzailearen izenarekin eta argitaratze urtearekin batera emateari, modu horretan itzulpengintzan eginiko ahaleginari zabalkundea eman nahiz.

Logikoa denez, gure esparru kulturean beharrezkoak izateko aukera gehieneko hitzak azaltzeari eta informazioaren baliagarritasunari nahiz argitasunari eman zaio lehen-tasuna. Literatur diskurtsoa eratzen duten arlo, maila eta esparru bateko eta besteko hitzen zerrenda da hiztegi hau, eta ordena alfabetikoan eratzen dituela osagai horiek. Sailez sail, literaturaren teoriari, historiari eta kritikari dagozkion kontzeptu eta jakintza arlo orokorrak nahiz konkretuak, Erretorika eta metrika arloko termino teknikoak, literatur generoak eta azpigenoak, Teknizismoak: beste arte eta giza zientzietatik jasoriko terminoak nahiz teoria kritiko jakinek sorturikoak. Aldi, belaunaldi, talde edo eskola literarioak. Mugimenduak eta abangoardiak; Korronte kritiko nagusiak, Literatura sortzaileak, eragileak eta pertsonaiak, literaturarekin edo literatura mota jakin batekin zerikusia duten elementu materialak eta abstraktuak, nahiz sailkatzen zailago direnak.

Egin den lexiko hautapenari dagokionez, ikuspegi zabalenari heldu zaio. Batetik, maila ez unibertsitarioetan erabiltzen den literatura hizkera teknikoari dagozkionak daude, esaterako, metrika kontzeptuak, figura erretorikoak, genero eta azpigenoeren ezaugarriak. Bestalde, iruzkin kritikoen erabiltzen diren kontzeptuak: egilea, kontalaria, denbora, estiloak... Gisa berean, euskal ondare literarioa aintzakotzat hartzen duen lexikoa osoki jaso da: tobera mustra, kantu, almanaka, pastoral, maskarada, billantziko... Beste maila batean, Mendebaldeko kultura mailako ezagupen teorikoei, historikoei eta estetikoei dagozkienak, hala nola, historia literarioari dagozkion terminologia. Gisa berean, literatura ikerketen arloko adituek erabiltzen dituzten bestelako termino espezializatuak eta teknizismoak ere jaso eta argitzen dira hiztegi honetan. Esate baterako, anagnorisi edo katarsis antzertiaren azterketan; istorioa edo diskurtsoa narratibaren atzerketan edota olerkiaren arloan coupling edota akrostiko nahiz kaligrama gisakoak. Azkenik, nazioarteko komunitate zientifikoan ezagun diren proposamen teorikoen berri ere jaso da eta haien hiztegi terminologikoaren lekukotza eman du hiztegiak, hala nola, aspektu edota modu kontzeptuak Tz. Todorov-en terminologian.

Literatura terminoen hiztegiaren iturri dira XX. mendeko azken herenean garaturiko euskarazko ikaskuntza unibertsitarioek eginiko ibilbidearen emaitzak. Ikaskuntza horiek jorratu dituzte lehen poetika saioak (Oihenart, Mikoleta, Larramendi...), euskarazko lexikoa bildu edota neologismoa sortu dituzten hiztegiak, XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako ikertzaile eta sortzaileek eman zioten bultzadaren emaitzak (Azkue, Arana Goiri, Lopez Mendizabal, Lande, Orixe, Lizardi...) Halabaina, esan bezala, 1968z geroztiko euskararen normalizazio prozesuaren eraginez egin dira ahaleginik handienak azken hamarkadetan lexiko hori erabiltzeko eta arautzeko, hezkuntza arloko premiei erantzun beharrez. Literatura zientzien esparruan garaturiko kontzeptuak eta teoriak euskaraz emateko xedea izan dute, hala erretorika tradizionalekoak nola egungo teorizazioen inguruak. Hiztegi hau ahalegin horien ildoan emaniko urrats bateratzailea da.

Literaturako Terminoen Hiztegiaren edukiari dagokionez, egileek ohartarazten duten bezala, hiztegi honek ez du helburu entziklopedikorik izan, eta ez da informazio zabalik eskaintzen idazlanei, egileei edota garai historikoei buruz. Euskal literaturari dagozkionaldi eta erakunde ezagunen datu xumeak soilik erantsi dira, eta, idazlanak aipatzerakoan.

Literaturaren arloko lexikogintzari dagokionez, aintzakotzat hartu beharrekoa da Europako tradizio kultistak erro grekolatindar sakonak dituela, eta are gehiago terminologia tekniko eta zientifikoa. Horregatik, kultura esparruko hizkuntza nagusietan erabiltzen den lexikotik gehiegi urrututako joera garbizaletik ihes egin du, aitzitik, mendealdeko esparru kulturean baliagarri eta identifikatzen erraz izango zaigun lexikoa garatzea eta finkatzea izan da hiztegi honen egileen xedea, euskal lerroko lexikoari ere ahal bezain sarrera zabala eman zaiolarik hiztegiaren. Literaturari ubruzko hausnarketa teoriko eta kritikoak eginiko ibilbidearen lekuko, literatura termino asko grekotik, latinetik, italieratik, frantsesetik, gaztelanetik edo ingelesetik harturiko maileguak dira (metonimia, alegoria, paralelismo, litote, metatesi, metalepsi, sinbolo, akrostiko, anagrama, aliterazio, fabula, klise, xaribari, kazeta...). Teknizismoak ere badira tartean *deus ex machina*, *in medias res*, *inventio*, *dispositio*, *elocutio*, *actio*, *memoria*, *mise en abyme*, *laisse*, *kitsch*, *weltanschauung*, *leitmotiv*, *patchwork*, *stream-of-consciousness*, *Commedia dell'Arte*, *libretto*... Horrelakoa, letra etzanez adierazi dira hiztegiaren, euskarazko fonetikara egokitu gabeak diren neurrian.

Beste alde batetik, urteetan zehar moldatzen joan den euskal erroko lexiko espezializatua jatorriz aski termino zehaztugabeetan oinarritua da, eztabaida arantzatsuen eta teoriaren garapenarentzat eragozpengarri izan delarik, hala gertatu da bertso, puntu edo errima bezlakoekin; beste kasu batzuetan, arazo iturri izan da hitzek erabileraren ezberdina izatea euskalkiaren arabera edota testuinguruaren arabera, hala nola, tobera, asto lasterra, kopia moduko hitzekin. Horregatik, Orotariko Euskal Hiztegiaren laguntzaz garatu den literatura terminologiari buruzko hiztegi honek zientzia literarioek eskatzen duten lexiko berezitua eta zehatza proposatzeko asmoa izan du, eskura zituen baliabide lexikoei buruzko informazio eguneratuaz baliatuz.

Literatura Ikerketa Batzordeak kemenez eta elkarren laguntzaz eginiko ahalegin borondateatsuen fruitu da hiztegia eta espero izatekoa da, egileek iragartzen duten moduan, euskal ikasketa literarioen esparruan izango duen harrerak ekarriko duela zuzentze eta osatze prozesua, eta hori euskal literaturaren ikerketaren mesedetan eta euskal ikasketen zerbitzurako gertatuko dela.

Lourdes Otaegi Imaz